| OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO ORDINARIO<br><br>2023KO OTSAILAREN 27A / 27 DE FEBRERO DE 2023 | |
|---|---|
| **BERTARATUAK / ASISTENTES** | |
| **IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL**<br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna | **ALKATEA / ALCALDE**<br><br>D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).<br><br>**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**<br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Ander Curiel Ayuso PSE-EE (PSOE).<br><br>**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**<br><br>Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Elena Ibañez Anucibay andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Amaia Albizu Llubia andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (EH BILDU).<br>Dña. Miren Baranguan Yarza andrea (EH BILDU).<br>D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).<br>Dña. Mª Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK). |

**Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

http://eibar.videoacta.es?pleno=20230227&instante=58

**Eibarko udaletxearen Batzar Aretoan, 2023ko otsailaren 27an, arratsaldeko zazpiak izanik, Udalbatza bildu zen ohiko bilkuran**, goian aipaturiko jaun-andreek osatua; María Isabel Larrauri Arriaga andreak bere ezin etorria justifikatu du.

**En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las diecinueve horas del día 27 de febrero de 2023, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal**, formado por las señoras y señores anteriormente mencionados/as; habiendo justificado su ausencia Dña. María Isabel Larrauri Arriaga.

**Alkate** jaunak bilerari hasiera eman dio eta honako hau aztertu da:

El Sr. **Alcalde** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

**GAI-ZERRENDA**

**ORDEN DEL DÍA**

**1. 2023ko urtarrilaren 30eko bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.**

**1. Aprobación del borrador de acta correspondiente a la sesión de 30 de enero de 2023.**

2023ko urtarrilaren 30eko bilkurari dagokion akta-zirriborroa bozkatu ondoren, onartu egin da eta aktatzat hartu.

Sometido a votación el borrador de acta correspondiente a la sesión de 30 de enero de 2023, queda aprobada, siendo elevada a acta.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

ALDEKO BOTOAK: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

VOTOS A FAVOR: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

ABSTENCIONES: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**2. Alkatetzaren ebazpenen kontu-ematea.**

**2. Dación de cuentas de resoluciones de Alcaldía.**

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

**3. Eibarko EAJ-PNV udal-taldeak Obra Batzorde Aholkularian egin duen batzordekide-aldaketaren berri ematea.**

**3. Dación de cuentas de cambio de vocal del grupo municipal Eibarko EAJ-PNV en en la Comisión Asesora de Obras.**

EAJ-PNV udal-taldeak, 2023ko urtarrilaren 24an egin zuen idatzi honen berri eman da:

Se da cuenta del siguiente escrito del Grupo municipal EAJ- PNV de 24 de enero de 2023:

Eibarko EAJ-PNV udal-taldeak jakinarazten du Obra Batzorde Aholkularian ordezkari-aldaketa egin duela eta Josu Mendicute Rodríguez jauna izango dela batzordekide Alberto de la Hoz Gorriti jaunaren ordez.

El grupo municipal EAJ-PNV de Eibar comunica el siguiente cambio de representante en la Comisión Asesora de Obras, en sustitución de D. Alberto de la Hoz Gorriti será vocal D. Josu Mendicute Rodríguez.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

**4. Kontu ematea: 2023-2-21eko Alkatetzaren ebazpena, Energia Iraunkortasunerako Batzordearen eginkizunak Ingurumeneko Batzorde Aholkulariak hartuko dituela bere gain erabakiz.**

**4. Dación de cuentas: Resolución de Alcaldía de 21-2-2023 acordando que las funciones de la Comisión para la Sostenibilidad Energética sean asumidas por la Comisión Asesora de Medio Ambiente.**

Alkatetzak, 2023ko otsailaren 21ean emandako ebazpenaren berri eman da:

ALKATETZAREN EBAZPENA

Eibarko Udalak Eibarko Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana 2022-2030 (KEJEP) dokumentua onartu zuen urtarrilaren 30ean egin zuen osoko bilkuran. Plan horretan, hainbat neurri eta jarduera-ildo ezartzen dira berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta, horrela, klima-aldaketaren ondorioak arintzen saiatzeko.

Plan horrek jasotzen duen ildo estrategikoetako bat da "Udalerriaren klima-erronkei erantzuna emango dien gobernantza-eredua eratzea". Ildo horretako ekintzen artean dago 9.1.2 ekintza. "Klima eta Energia Plana egikaritzeko, kudeaketa integratua eta maila anitzeko gobernantza-eredua sustatzea".

Kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Iraunkortasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 9.1 artikuluak Energia Jasangarritasunerako Batzorde bat izatera behartzen duela, zeina sortu berria izan daitekeen edo udal-antolakuntzan lehendik dagoen organo bat izan.

Kontuan hartuta, organo horrek, besteak beste, KEJEP planean aurreikusitako ekintzak bultzatu eta haien jarraipena

Se da cuenta de la siguiente Resolución de Alcaldía de 21 de febrero de 2023:

RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

Visto que el Pleno del Ayuntamiento de Eibar, en sesión ordinaria celebrada el 30 de enero de 2023, aprobó el Plan de Acción para el clima y la Energía Sostenible (PACES) de Eibar 2022-2030, en el que se establecen diversas medidas y líneas de actuación que permitan reducir las emisiones de gases de efecto invernadero y tratar, así, de mitigar las consecuencias del cambio climático.

Este Plan recoge como uno de sus líneas estratégicas "Articular un modelo de gobernanza que permita dar respuesta a los retos climáticos del municipio". Como parte de las acciones de esta línea, se incluye la acción 9.1.2. "Promover una gestión integrada y un modelo de gobernanza multinivel para ejecución del PACES".

Considerando que el artículo 9.1 de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la Comunidad Autónoma Vasca obliga a contar con una Comisión para la Sostenibilidad Energética, que puede ser de nueva creación o bien un órgano ya existente en la organización municipal.

Considerando que dicho órgano tendrá, entre otras funciones, las de impulsar y hacer el seguimiento de las acciones

egiteko betekizunak izango dituela, bai eta jarduteko lehentasunak planifikatu eta zehaztea ere.

Kontuan hartuta Alkatetzaren 2021eko martxoaren 15eko Ebazpenaren bidez sortu zela Ingurumeneko Batzorde Aholkularia, Udalaren Erregelamendu Organikoaren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Ikusita Ingurumeneko teknikari andrearen txostena, 2023ko otsailaren 15ekoa, non "*Energia Iraunkortasunerako Batzordearen eginkizunak Ingurumeneko Batzorde Aholkulariak bere gain hartzea*" proposatzen duen.

Horren ondorioz,

**EBAZTEN DUT**

**LEHENENGOA.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Iraunkortasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 9.4 artikuluan aurreikusitako Energia Iraunkortasunerako Batzordearen eginkizunak Ingurumeneko Batzorde Aholkulariari esleitzea.

**BIGARRENA.-** Udal Osoko Bilkurari ebazpen honen berri ematea egiten duen lehen bilkura arruntean.

previstas en el PACES, así como de planificar y definir prioridades de actuación.

Considerando que, mediante Resolución de Alcaldía, de 15 de marzo de 2021, se creó la Comisión Asesora de Medio Ambiente, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 12 del Reglamento Orgánico Municipal.

Visto el informe de la Sra. Técnica de Medio Ambiente, de 15 de febrero de 2023, en el que propone que *"las funciones de la Comisión para la Sostenibilidad Energética sean asumidas por la Comisión Asesora de Medio Ambiente"*.

En consecuencia,

**RESUELVO**

**PRIMERO.-** Atribuir a la Comisión Asesora de Medio Ambiente las funciones de la Comisión para la Sostenibilidad Energética previstas en el artículo 9.4 de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la Comunidad Autónoma Vasca.

**SEGUNDO.-** Dar cuenta de la presente Resolución al Pleno Municipal en la primera sesión ordinaria que celebre.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

**GAI-ZERRENDAN SARTZEA:**

**INCLUSIÓN EN EL ORDEN DEL DÍA:**

**A) 2023ko martxoaren 8rako Eibarko Udalaren Adierazpenanaren berri ematea, 2022ko martxoaren 8a dela-eta.**

**A) Dación de cuentas de la Declaración de Ayuntamiento de Eibar con motivo del 8 de marzo de 2023.**

Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, 138 artikuluarekin lotua, eta A) atala presakoa dela adierazi eta aho batez berretsi ondoren, honako Adierazpenaren berri eman da:

De acuerdo con lo previsto en el artículo 82.3 en relación con el artículo 138 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y previa declaración de urgencia del apartado A), ratificada por unanimidad, se da cuenta de la siguiene Declaración:

**2023ko martxoaren 8rako Eibarko Udalaren Adierazpena.**

**Declaración de Ayuntamiento de Eibar con motivo del 8 de marzo de 2023.**

25 urte baino gehiago igaro dira, Beijineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak hartzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa hartu zenetik. Nahiz eta aurrerakuntzak izan diren, munduko herrialde gehienek ez dute genero berdintasunik lortu, eta gutxi batzuk bakarrik ezarri edo bete dituzte sexuen

Han pasado más de 25 años desde que se adoptó el acuerdo internacional de lograr la participación política y distribución equilibrada del poder entre hombres y mujeres en la toma de decisiones en la Declaración y Plataforma de Acción de Beijing. A pesar de los avances, la mayoría de los países del mundo no ha logrado la Igualdad de género, y son pocos los que han establecido o cumplido metas

arteko berdintasunean asmo handiko helburuak.

ambiciosas respecto de la paridad entre los sexos.

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoarekin, arrakala horiek gizartearen zati handi batentzat handitu direlako eta, batez ere, emakumeentzat. Orain da liderrak izateko garaia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak lortzeko. Sektore anitzeko lankidetzako gobernantza feministaren eredu baterantz aurrera egin behar da, elkar entzutean oinarrituz, baita botere eta erantzukizunen banaketa eta partaidetza-prozesuak abian jartzean ere.

En el contexto actual de crisis múltiples se busca replantear los modelos social, económico, medioambiental y de gobernanza a fin de reducir las brechas de desigualdad, que han aumentado para gran parte de la humanidad y, principalmente, para las mujeres.  Es el tiempo de liderar para transformar las organizaciones y la sociedad hacia modelos de relación mucho más inclusivos, cooperativos y creativos. Se necesita avanzar hacia un modelo de gobernanza feminista de colaboración multisectorial; basada tanto en la escucha como en la puesta en marcha de procesos de la participación y distribución de poderes y responsabilidades.

Mugimendu eta talde feministak eta emakumeenak, aniztasunean eta belaunaldien artean, berdintasunaren inguruko hainbat gai salatzeko eta eskatzeko mobilizatzen ari dira. Adibidez, arrazakeriaren kontrako justiziatik hasi eta soldata-berdintasuneraino, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioa, sexu-jazarpenaren ezabatzea, klimaren aldeko justizia, bakea mantentzea, eta hainbat gehiago.

Las organizaciones feministas y de mujeres en su diversidad y entre generaciones, vienen movilizándose para denunciar y reclamar una serie de cuestiones de igualdad:  desde la justicia racial hasta la igualdad salarial, el fin a la violencia y la discriminación contra las mujeres, la eliminación del acoso sexual, la justicia climática, el mantenimiento de la paz y más.

Emakumeek politikan eta erabakiak hartzerakoan berdintasunean parte hartzea eta lidergoa izatea funtsezkoak dira, 2030an, Garapen Jasangarriaren

La participación y el liderazgo de las mujeres en la política y en todos los ámbitos de decisión en pie de igualdad son fundamentales para alcanzar los Objetivos

Helburuak lortzeko. Hala ere, tokiko eremutik orokorrera, emakumeen parte-hartzea mugatua izaten jarraitzen du, alderdi formaletako erabakiak hartzerakoan, besteak beste, politika gaietan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, unibertsitatean, sindikatuetan, elkarte eta kooperatibetan, eta beste hainbat sektoretan.

de Desarrollo Sostenible en 2030. Sin embargo, desde el ámbito local hasta el global, la participación de las mujeres en la toma de decisiones en las esferas formales sigue siendo limitado, ya sea en la política, la administración pública, empresas privadas, universidad, sindicatos, asociaciones y cooperativas, y otros sectores.

Martxoaren 8 honetan, emakumeen nazioarteko egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatuaren eredu batetik abiatuta. Era berean, berdintasun arloan erabakiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Emakumeen parte-hartzea ikuspegi askoz ere zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo arauemailetik. Emakumeek erabakiguneetan parte hartzeko dituzten baldintzak aldatu behar ditugu.

Este 8 de marzo, día internacional de las mujeres, es prioritario impulsar los liderazgos de las mujeres desde un modelo de gobernanza feminista y liderazgo compartido. Trabajar por generar las condiciones para aumentar la participación de las mujeres en la toma de decisiones en igualdad. Hay que entender la participación de las mujeres desde una perspectiva mucho más amplia, no solo la formal o normativa, sino que tenemos que cambiar las condiciones en las que las mujeres puedan participar de los espacios de decisión.

Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko, beharrezko da…

Para trabajar por la participación de las mujeres es necesario…

botere-espazioak partekatzea eta uzteak eragozten dituzten erresistentziei eta inertziei aurre egitea. Horretarako, kristalezko sabaiak hautsi behar dira, espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi intersekzionalarekin emakumeen presentzia bermatuko duten neurriak ezarriz.

combatir las resistencias e inercias que impiden compartir y ceder espacios de poder, rompiendo los techos de cristal con medidas que garanticen la presencia de las mujeres en todos los espacios, en toda su diversidad y con perspectiva interseccional;

- zaintza-lanen banaketa erantzunkidean aurrera guztiz egitea, justizia-printzipioa delako eta emakumeen gainkargak herritartasun osoa egikaritzea mugatzen duelako.
- zaintza eta bestelako lan feminizatuen sektore profesionala prekarizatuak balioestea, eta sektore horri gizarte-balioa aitortzea, bere baldintzak hobetuz.
- emakumeek lidergoetan duten konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen duten estereotipo eta aurreiritziei aurre egitea.
- emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria politikoa ere.
- lidergoan jarduteko praktikak eta moduak deseraikitzea, besteak beste, menderatzean oinarritutako eredu androzentrikoak, zaintzaren denborak eta erantzukizuna kontuan hartu gabe, emakumeen eta boteretik baztertutako beste kolektibo batzuen talentua eta jakintzak mesprezatuz, eta talde-lana ez baloratuz.
- emakumeen eta nesken eskubideak ikuspegi intersekzionala, berritua, erradikala eta eraldatzailea duen agenda feministaren erdigunean jartzea, emakume horiek boterean duten bazterketa sistematikoari aurre

- avanzar radicalmente en una distribución corresponsable de las tareas de cuidado, porque es un principio de justicia y porque la sobrecarga de las mujeres limita su ejercicio pleno de la ciudadanía;
- poner en valor el sector profesional de los cuidados precarizados y otros trabajos feminizados, y reconocer su valor social, mejorando sus condiciones;
- combatir los estereotipos y prejuicios que limitan la confianza, credibilidad e influencia de las mujeres en el ejercicio de los liderazgos;
- erradicar todas las formas de violencia hacia las mujeres, incluidas la violencia política contra las mujeres;
- deconstruir las prácticas y formas de ejercicio del liderazgo desde modelos androcéntricos basados en la dominación; desconsiderando los tiempos y la responsabilidad del cuidado; que desprecian el talento y saberes de las mujeres y otros colectivos excluidos del poder; y sin valorar el trabajo colectivo;
- colocar los derechos de las mujeres y las niñas en el centro de una agenda feminista con enfoque interseccional, renovada, radical y transformadora, para combatir la sistemática exclusión de estas en el poder y reducir las brechas de desigualdad.

egiteko eta desberdintasun-arrakalak murrizteko.

Horregatik, Eibarko Udaletik, gure eskumenen markoan, konpromiso hauek hartzen ditugu: emakumeen lidergoa bultzatzea eta boterea berdintasunean egikaritzeko baldintzak erraztea. Estamentu publiko eta probatu guztietan emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzen duten politikak indartzea da helburua, martxoaren 3ko 1/2022 Legean, Emakume eta Gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldaketari buruzkoan, ezarritakoaren arabera:

Por eso desde el Ayuntamiento de Eibar, en el marco de nuestras competencias, nos comprometemos a impulsar el liderazgo de las mujeres y a favorecer las condiciones para el ejercicio del poder en igualdad. Se trata de fortalecer las políticas que promuevan el empoderamiento y participación de las mujeres en todos los estamentos públicos y privados según lo establecido en la Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres:

1. Emakumeen Etxeak sortzeko prozesu parte-hartzaileekin hastea, udalerri bakoitzaren beharretara egokituta.

2. Ahalduntze programak eta eskolak baliabide eta leku egokiez hornitzea

3. Mugimendu feministaren eta emakume-elkarteen parte-hartzea indartzea, emakumeen/berdintasunaren tokiko kontseiluetan, erabaki partekatuak hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.

4. Berdintasun-planen intersekzionalitatea indartzea gure gizartea osatzen duten eremu guztietan,

1. Iniciar procesos participativos para la creación de Casas de Mujeres, adaptados a las necesidades de cada municipio.

2. Dotar los programas y las escuelas de empoderamiento de recursos y espacios adecuados.

3. Fortalecer la participación del movimiento feminista y las diferentes asociaciones de mujeres en los Consejos Locales de mujeres/igualdad desde un firme compromiso de toma de decisiones compartidas.

4. Reforzar la interseccionalidad de los planes de igualdad en todos los ámbitos que conforman nuestra sociedad para

emakumeek beraien aniztasunean duten parte-hartze osoa eta eraginkorra finkatzera iristeko.

llegar a consolidar la participación plena y efectiva de las mujeres en su diversidad.

5. Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea, 1/2022 Legearen aginduak dakarrena kontuan hartuz, neskatilen, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango duten politikak egiteko informazioa emateko

5. Generar datos desagregados por edad y género para aportar información a la elaboración de políticas que tengan un impacto directo en las vidas de las niñas, adolescentes y mujeres según el mandato de la ley 1/2022.

6. Politikan sartzen diren emakumeentzako ikaskuntza- eta ahalduntze-guneak antolatzea, emakume hautetsien arteko laguntza-, elkartasun- eta aliantza-sareen bidez, adibidez, Basqueskola Sarea, edo beste sare batzuk

6. Articular espacios de aprendizaje y empoderamiento para las mujeres que acceden a la política, mediante redes de apoyo, solidaridad y alianza entre mujeres electas, como Basqueskola Sarea y otras.

7. EUDELeri eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposa ditzala, emakumeen partea hartzeari eta erabakitzeko gaitasunari buruzko ikerketa bultza dezala eta ordezkaritza orekatu baterantz egiten diren aurrerapenak babes ditzala.

7. Instar a que EUDEL proponga protocolos para hacer frente a la violencia política, que impulse la investigación sobre la participación de las mujeres y sobre la capacidad de decisión y apoye los avances hacia una representación equilibrada.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

**5. Adikzioen Prebentziorako VI. Plana (2023-2027).**

**5. VI Plan de Prevención de Adicciones 2023-2027.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 20 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
KONTRAKO BOTOAK: 0.
ABSTENTZIOAK: 0.

Ikusita 2023ko urtarrilaren 24ko Gizartekintza Batzorde Aholkulariak egindako proposamena; baita Gizarte Zerbitzuetako zuzendari andreak egindako txosten teknikoa ere, biak Adikzioen Prebentziorako VI. Plana (2023-2027) dokumentuari buruzkoak.

Plan hori Ortzadar Fundazioak egin zuen 2022an.

2023ko otsailaren 20ko Erakunde, Lege eta Lurralde Gaietako Lan Batzordearen aldeko irizpena aintzat hartuta, Udal Osoko bilkurak

**ERABAKITZEN DU**

**BAKARRA.-** Onartzea Adikzioen Prebentziorako VI. Plana (2023-2027).

**6. 2023. urteko soldaten igoera.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 20 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
VOTOS EN CONTRA: 0.
ABSTENCIONES: 0.

Vista la propuesta de la Comisión Asesora de Servicios Sociales de 24 de enero de 2023, así como el informe técnico de la Directora de Servicios Sociales sobre el documento V Plan de Adicciones 2023-2027.

Dicho Plan fue elaborado por Ortzadar Fundazioa en 2022.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de 20 de febrero de 2023, el Pleno Municipal

**ACUERDA**

**ÚNICO.-** Aprobar el VI Plan de Prevención de Adicciones 2023-2027.

**6. Incremento de las retribuciones salariales para el año 2023**.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

ALDEKO BOTOAK: 19 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5).
KONTRAKO BOTOAK: 1 - Elkarrekin Eibar-Podemos.
ABSTENTZIOAK: 0.

Antolaketa eta Pertsonal zuzendari andreak 2023ko otsailaren 17an egindako txostena ikusita,

2023ko otsailaren 22ko Pertsonaleko Lan-Batzordearen aldeko irizpena aintzat hartuta, Udal Osoko bilkurak

**ERABAKITZEN DU**

**ATAL BAKARRA.-** Eibarko Udaleko langile funtzionarioen eta lan-kontratudunen 2023. urteko soldatak edo lansariak igotzea Estatuko Aurrekontu Orokorrak dakartzan abenduaren 23ko 31/2022 Legeak ezarritakoaren arabera:

- % 2,5eko igoera, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, funtzionario eta lan-kontratudunentzat.
- 2022. urteko KPIHaren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren batura ehuneko 6tik gorakoa bada, gehienez ere % 0,5eko igoera gehigarria aplikatuko zaie funtzionarioei eta lan-kontratuko langileei, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera.
- BPG nominalaren igoerak Gobernuak Aurrekontuei buruzko Legea

VOTOS A FAVOR: 19 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5).
VOTOS EN CONTRA: 1 - Elkarrekin Eibar-Podemos.
ABSTENCIONES: 0.

Visto el el informe emitido por la Sra. Directora de Organización y Personal, de 17 de febrero de 2023.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Personal de 22 de febrero de 2023, el Pleno Municipal

**ACUERDA**

**ÚNICO.-** Incrementar las retribuciones del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Eibar del año 2023, según lo previsto en la Ley 31/2022 de 23 de diciembre de Presupuestos Generales del Estado, en lo siguientes términos:

- Un incremento del 2.5% con efectos desde el 1 de enero de 2023 para el personal funcionario y laboral.
- Si la suma del IPCA del año 2022 y del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023 fuera superior al 6 por ciento, se aplicará un incremento retributivo adicional máximo del 0,5 por ciento desde el 1 de enero de 2023 para el personal funcionario y laboral.
- Si el incremento del PIB nominal igualase o superase el estimado por el

egitearekin batera datorren taula makroekonomikoan kalkulatutakoa berdindu edo gaindituko balu, % 0,5eko igoera osagarria aplikatuko litzaieke 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera funtzionarioei eta lan-kontratudunei.

Gobierno en el cuadro macroeconómico que acompaña a la elaboración de la ley de Presupuestos, se aplicará un aumento retributivo complementario del 0,5 por ciento desde el 1 de enero de 2023 para el personal funcionario y laboral

**7. Galderak eta erreguak.**

**7. Ruegos y Preguntas.**

Eta, beste aztergairik ez dagoenez, eta arratsaldeko zortziak eta hogei izanik, Alkate-Udalburu jaunak amaitutzat eman du Osoko Bilkura; eta nik, Idazkari Nagusi naizen honek, horren guztiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas veinte minutos, el Sr. Alcalde-Presidente levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE

Jon Iraola Iriondo

IDAZKARIA / EL SECRETARIO

Juan Agustín Villafranca Bellido